

GETXOKO UDALA ERATZEKO BATZARRAREN AKTA, 2019KO EKAINAREN 15EAN.	ACTA DE LA SESIÓN DE CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 15 DE JUNIO DE 2019.
---	---

<u>ETORRI DIRENAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>ZINEGOTZIAK (In./Andk.)</u>	<u>CONCEJALES (Sras./Sres.)</u>

Amaia Aguirre Muñoa (EAJ/PNV)
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Ahotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Gujarrubia Garcia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)
Carmen Diaz Pérez (PSE-EE)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Pérez de Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (ELKARREKIN PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (ELKARREKIN PODEMOS)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hemeretziak ekainaren hamabosteko bederatzia eta hogeita hamarrak direnean, lehen deialdian, eta udalbatza eratzeko bilera egiteko asmoz, Hauteskunde Erregimeneko 5/85 Lege Organikoaren 195 artikulua araberak, arestian esandako zinegotzi hautetsiak elkartu dira. Aurretiaz beren nortasuna erakutsi dute, Hauteskunde Batzarrak luzatutako frogagiriak aurkeztuta. Udalbatzako idazkari nagusia, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna ere bertan dago, laguntzeko.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, siendo las nueve y treinta horas del día quince de junio de dos mil diecinueve, en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, de conformidad con el artículo 195 de la Ley Orgánica 5/85, del Régimen Electoral, se reúnen los Concejales electos arriba expresados, quienes previamente han acreditado su personalidad mediante la aportación de las credenciales expedidas por la Junta Electoral, asistidos del Secretario General de la Corporación don Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.

Bilkura egiteko legez behar den jende kopurua bada goela egiaztatu ondoren, eguneko aztergaien zerrendako bi gai bakarrak jorrateari ekin diote, lege araudian aurreikusitako bezala, eta emaitza hauxe izan da:

Comprobado que existía número legal suficiente para celebrar la sesión, se pasó a tratar de los dos únicos asuntos incluidos en el Orden del Día, previstos en la normativa legal, con el resultado siguiente:

83.- UDALBATZA ERATZEA

83º.- CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO.

Hasteko, Adin Mahaia osatu da: hautetsien artean adinez nagusia Asunción Olaeta andrea da, PSE-EEren alderdiaren izangai hautetsia, eta adinez gazteena Gonzalo Ayo jauna, PSE-EEren izangai eta hautetsia. Adin Mahaiko Idazkari, berriz, indarreko araudia betez, udaleko idazkaria bera, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jauna arituko da.

Se procedió en primer lugar a la formación de la Mesa de Edad, que fue integrada por doña Asunción Olaeta, Concejala de mayor edad proclamada electa por la candidatura del PSE-EE, y por don Gonzalo Ayo, Concejale de menor edad proclamado electo por la candidatura del PSE-EE, y actuando como Secretario de dicha Mesa de Edad, de conformidad con la normativa vigente, el que lo es del Ayuntamiento, don Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.

Jarraian, Bilboko eremuko

Seguidamente el suscrito procedió a dar

Hauteskunde Batzarrak bidali duen Getxoko zirkunskripzioari dagokion ALDARRIKAPEN AKTA irakurri da, non izangai zerrenda bakoitzak atera dituen botoak eta lortu dituen zinegotziak ageri baitira. Hara:

lectura del ACTA DE PROCLAMACIÓN correspondiente a la circunscripción de Getxo, remitida por la Junta Electoral de Zona de Bilbao, en la que constan el número de votos y electos obtenidos por cada candidatura, de la forma siguiente:

Hautagai-zerrendak Candidaturas	Jasotako botoak Votos obtenidos	Hautetsi kopurua Número de electos
Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)	16.344	11
Partido Popular (PP)	6.881	5
Euskal Herria BILDU (EH Bildu)	6.311	4
Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE)	4.420	3
Elkarrekin Podemos	3.334	2
Ciudadanos-Partido de la Ciudadanía	1.357	0
Libres por Euskadi	1.150	0
GUK	860	0
VOX	679	0
Ganemos	110	0
Partido de Acción Solidaria Europea	65	0

Jarraian hogeita bost hautetsiak bertan daudela egiaztatu da.

A continuación se comprobó que habían comparecido los veinticinco Concejales elegidos.

Ez da inolako bateraezintasun ziorik argudiatu, eta egiaztatu da indarreko araudiak agintzen duen ondare ondasunen eta interesen aitorenak aurkezteari buruzko baldintza guztiak bete direna, eta egiaztagiriak ere aurkeztu direna; beraz, mahaiak udalbatza berria aldarrikatu du, Hauteskunde Batzarrak, lege aurreikuspenak betetzeko, bidalitako boto zenbaketaren aktaren arabera. Honelaxe osatuta geratuko litzateke:

No se alegó ninguna causa de incompatibilidad, comprobándose que se habían cumplido todos los requisitos establecidos de presentación de las declaraciones de bienes patrimoniales y de intereses que establece la normativa vigente, al igual que las Credenciales, por lo que la Mesa declaró proclamada la nueva Corporación, de conformidad con el Acta de escrutinio remitida por la mencionada Junta Electoral, en cumplimiento de las previsiones legales, con la siguiente composición:

Amaia Aguirre Muñoa (EAJ/PNV)
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)

Amaia Aguirre Muñoa (EAJ/PNV)
Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV).
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Francisco J. Elorza Hormaeché (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Gujarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH
BILDU)
Carmen Diaz Pérez (PSE-EE) (PSOE))
Gonzalo Ayo Jiménez (PSE-EE) (PSOE))
Asunción Olaeta Pérez de Mendiola (PSE-
EE) (PSOE))
Ignacio Robles Fernández (ELKARREKIN
PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (ELKARREKIN
PODEMOS)

Jarraian, mahaiko idazkariak esan du Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 108-8 artikulua arabera, hautetsiek, karguaz jabetzen direnean, erabateko zinegotzi izango badira, Konstituzioari zin egin edo men egin beharko diotela.

Horretarako, legez ezarritako zin edo aginduaren formula irakurri du, 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuak aurreikusitakoa; hauex da:

Zin dagizue, edo agintzen duzue, zuen kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko zinegotzi arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzuela, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Francisco J. Elorza Hormaeché (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Gujarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH
BILDU)
Carmen Diaz Pérez (PSE-EE)
Gonzalo Ayo Jiménez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Pérez de Mendiola (PSE-
EE)
Ignacio Robles Fernández (ELKARREKIN
PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (ELKARREKIN
PODEMOS)

Seguidamente el suscrito Secretario componente de la Mesa, manifestó que de conformidad con el artículo 108-8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, en el momento de tomar posesión, y para adquirir la plena condición de sus cargos, los candidatos electos deberán jurar o prometer acatamiento a la Constitución.

A tal efecto, dio lectura de la fórmula de juramento o promesa legalmente establecida, prevista en el Real Decreto de 5 de abril de 1.979, que es como sigue:

¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la

bete eta betearaziko duzuela, Estatuko funtsezko araua delako?

Constitución como norma fundamental del Estado?

Zinegotziek eskatutakoa bete zuten, hitzmatearen edo zin egitearen bitartez.

Los concejales cumplieron el requisito bajo la figura de promesa o juramento.

Ondorioz, Adin Mahaiko buru Asunción Olaeta andreak, kargu jabetzearen tramite guztiak bete ondoren, Getxoko Udalbatza legez eratuta geratu dela adierazi du.

En consecuencia, la Presidente de la Mesa de Edad doña Asunción Olaeta, una vez cumplidos los trámites de la toma de posesión, declaró legalmente constituida la Corporación del Ayuntamiento de Getxo.

Idazkariak, segidan, udalaren eta bere autonomiadun erakundeen ondasunen kontaketa eta inbentarioa udalbatzaren eskueran zeudela argitu du.

El suscrito Secretario dio cuenta seguidamente de que estaba a disposición de la Corporación el arqueo y el Inventario municipal de bienes municipales y de sus Organismos Autónomos.

84.- ALKATEA HAUTATZEA

84º.- ELECCIÓN DE ALCALDE

Jarraian, Alkatea hautatzeari ekin diote, arestian aipatutako Lege Organikoaren 196 artikulua dioen bezala, udalbatza eratzten denean alkatea hautatuko dela baitio bertan.

A continuación se procedió a la elección de Alcalde, de conformidad con el artículo 196 de la Ley Orgánica antes citada, cuyo artículo señala que en la sesión de constitución se procederá a la elección de Alcalde.

Horretarako, idazkariak zinegotziei ohartarazi die beren hauteskunde zerrendetako buru izandako zinegotzi guztiak alkate izateko aurkez daitezkeela. Dagokienei galdetu zaie, uko egin dio aurkezteari. Beraz, ondoko zinegotziak aurkeztu dira alkate izateko:

A tal efecto el suscrito Secretario advirtió a los señores Corporativos que podían ser candidatos todos los Concejales que encabezasen sus correspondientes listas electorales. Preguntados los afectados, proclamándose como candidatos a la Alcaldía, los siguientes Concejales:

EAJ/PNVtik Amaia Aguirre Muñoa andrea.

Por EAJ/PNV: doña Amaia Aguirre Muñoa.

PPtik Eduardo Andrade Aurrecoechea jauna

Por el P.P: don Eduardo Andrade Aurrecoechea.

EH BILDUtik Nerea Guijarrubia García andrea

Por EH BILDU: doña Nerea Guijarrubia García.

ELKARREKIN PODEMOSetik Ignacio Robles Fernández

Por ELKARREKIN PODEMOS: Ignacio Robles Fernández.

Jarraian, Eduardo Andrade udalkideak hartu zuen hitza, eta honako hau adierazi zuen:

A continuación tomó la palabra el corporativo Eduardo Andrade que manifestó lo siguiente:

“Gaurkoan, Alderdi Popularraren izenean, Getxoko Alkatetzara aurkezten naiz, ziur nagoelako Getxon aldaketa lortzea posible dela.

“En el día de hoy me presento en el nombre del Partido Popular a la Alcaldía de Getxo porque estoy convencido de que el cambio es posible en Getxo.

Hauteskunde kanpainan zehar, EAJk izan ezik, gainerako alderdi ia guztiak bat etorri gara esan izan dugunean Getxo egiteko eta garatzeko erak aldatu egin behar direla.

Durante la campaña electoral casi todos los partidos salvo el PNV hemos compartido que las formas de hacer y de desarrollar Getxo debían cambiar.

Hauteskunde kanpainan zehar ere, hainbat ikuspuntu partekatu ditugu, eta horietan alderdi gehienak ados egon gara. Bada, horiei heldu nahi diet zuei eskatzeko Getxon aldaketa ahalbidetzeko.

También durante la campaña electoral hemos podido compartir muchos puntos de vista en los que la mayoría de los partidos estábamos de acuerdo, a esos puntos de vista en los que estamos de acuerdo es a los que hoy apelo para hacer que el cambio en Getxo hoy sea posible.

Duela lau urte, sasoi honetan, antzeko egoeran egon ginen. EAJk ez zuen gehiengoa lortu, eta hainbat alderdik kanpainan adierazi zuten arren aldaketa nahi zutela, ez zuten halakorik bilatu.

Hace cuatro años en estas mismas fechas nos encontrábamos en una situación similar, un PNV que no consiguió una mayoría y un conjunto de partidos que a pesar de haber anunciado en sus campañas que querían el cambio no lo buscaron.

Gaur, lau urte horien ostean, guztiok ikusi ahal izan duzue oposiziotik gutxi egin daitekeela Getxo aldatzeko, ekin egin behar dela eta gaur dela EAJ Alkatetzara iristea eragozteko eguna.

Hoy después de esos cuatro años todos habéis podido comprobar que desde la oposición poco se puede hacer que para cambiar Getxo hay que actuar y hoy es el día en el que hay que actuar e impedir que el PNV llegue a la Alcaldía.

Nik, nire bost zinegotzien babesarekin, Getxo aldatzeko konpromisoa hartzen dut. Zalantzarik gabe, behar besteko gehiengoa ez dugunez, erabaki garrantzitsu guztiak partekatu egin behar izango ditugu.

Yo con el apoyo de mis cinco concejales me comprometo a cambiar Getxo sin duda nuestra falta de mayorías suficientes nos obligará a tener que compartir todas las decisiones importantes

Legegintzaldi honetan, mahai gainean dugu Getxoko Nagusien Etxeari eta Getxoko Hiri antolamendurako plan orokorrari buruzko erabakia. Hala, garrantzitsua da horietan akordio sendoak lortzea, baina horrenbeste urtetako gobernu nazionalistaren erruz

En esta legislatura tenemos sobre la mesa la decisión sobre la Nagusien Etxea de Getxo y sobre el Plan General De Ordenación Urbana de Getxo en esto será importante grandes consensos, pero también serán necesarios grandes consensos para sacar a

Getxok pairatzen duen immobilismoarekin eta geldialdiarekin amaitzeko ere bai.

Gure herrian utzita dauden leku eta eraikin guzti horiek berreskuratu behar dira; esate baterako, Neguriko geltokia, Galeako gotorlekua, Bentako eraikina, San Martin eraikina eta beste asko, kanpainan zehar zerrendatu ditudanak.

Gure saltokiei mesede egingo dieten aparkalekuak eraiki eta neurri errealak eta eraginkorrak hartu behar dira gure tokiko merkataritza lehenago izan zena izatera buelta dadin.

Neurriak hartu behar dira gure kaleetan segurtasun faltarekin dauden arazoak konpontzeko. 2019ko lehenengo hiruhilekoko azken estatistikek diote Getxon % 26 igo dela delinkuentzia. Etxebizitzetan, aldiz, % 137 igo da.

Neurriak hartu behar dira gure kaleetako garbitasuna eta herriko zabor bilketaren zerbitzua hobetzeko, edukiontzietan pedalak jartzea barne.

Gure familien babesa handitu behar da, Getxoren hazkundera indartzeko laguntzekin eta gure nagusien bizi-kalitatea hobetuz.

Getxon laguntza behar duten bizilagunen babes soziala ere handitu behar da, eta zaindu, zergatik ez, udal laguntzak jasotzen dituztenek benetan daukatela horretarako eskubidea, iruzur mota oro ekiditeko.

Bestalde, akordioak bilatu nahi ditugu honako proiektu hauetarako:

- Hiri-autobusen bi linea ezartzeko*
 - Loroaren Landaren azpian eta Arrigunaga hondartzako maldan aparkalekuak eraikitzeko*
 - Ereagan udan doako TAO jartzeko bizilagunentzat. Guztiek ordainduko dute, guk izan ezik.*
 - Antzokiaren azpian pasabide bat ireki eta Algortako zirkulazioa berreskuratzeko*
 - Komun publikoen sarea jartzeko*
- Eta gure maskoten bizi-kalitatea ere hobetu*

Getxo de su inmovilismo de la parálisis que sufre por tantos años de gobierno nacionalista.

Es necesario recuperar todos esos lugares y edificios abandonados en nuestro pueblo como la Estación de Neguri, el Fuerte de La Galea, el edificio de La Venta, el edificio San Martin y otros muchos que a lo largo de la campaña he podido ir desgranando.

Es necesario construir aparcamientos que favorezcan a nuestro comercio y adoptar medidas reales y efectivas para que nuestro comercio local vuelva a ser lo que antes fue.

Es necesario tomar medidas para atajar los problemas de falta de seguridad en nuestras calles, la última estadística del primer trimestre del año 2019 indican que la delincuencia en Getxo ha aumentado un 26% y en viviendas un 137%

Es necesario tomar medidas para mejorar la limpieza de nuestras calles y la mejora del servicio de recogida de basuras del pueblo, incluyendo la instalación de un pedal en los contenedores de basura.

Es necesario ampliar la protección a nuestras familias con ayudas para potenciar el crecimiento de Getxo y la mejora en la calidad de vida de nuestros mayores.

Es necesario aumentar también la protección social a los vecinos de Getxo que lo necesiten y vigilar, porque no, que los que reciben ayudas municipales de verdad tengan derecho a ellas evitando cualquier tipo de fraude.

Y por otro lado nosotros queremos buscar consensos para:

- .- Implantar dos líneas de autobuses urbanos*
 - .- Construir aparcamientos debajo de la campa del Loro y en la ladera de la playa de Arrigunaga*
 - .- Implantar la OTA en Ereaga en verano gratis para los vecinos, todos pagan menos nosotros*
 - .- Abrir un paso bajo el Antzoki y recuperar la circulación por Algorta.*
 - .- Instalar una red de aseos públicos*
- Y también queremos mejorar la calidad de*

nahi dugu, zergatik ez? Araudiak betetzen ez dituztenentzako zehazpenak areagotzea eta, aldi berean, gure txakurren eta jabeen bizi-kalitatea hobetzea proposatzen dugu. Gure maskotek gure herriaz gozatzeko eskubidea dute.

Azken finean, lau urte ditugu aurretik, eta hiritarrek ahalbidetu digute Getxori eta kudeatzeko erari buelta ematea. Horregatik, botoa eskatu nahi dizuet zinegotzi gisa hautatuak izateko zortea izan duzuen guztioi. Esnatu, izan adorea eta ez ezazue utzi apatiagatik edo etsimenduagatik gobernu nazionalistak beste lau urtez jarrai dezan."

Jarraian zinegotziek isileko bozketa egin dute, horretarako emandako paperetan, mahaiak dei egin eta gero.

Emandako botoen zenbaketa egin ondoren, emaitza hau atera da:

Emandako botoak, denak baliozkoak, 25.

Horietatik:

Amaia Aguirre Muñoa andrearentzat _11_ boto

Eduardo Andrade Aurrecoechea jaunarentzat _5_ boto

Nerea Guijarrubia García andrearentzat _4_ boto

Ignacio Robles Fernández jaunarentzat _2_ boto

Boto zuriak 3

vida de nuestras mascotas, porque no? Del mismo modo que aumentaremos las sanciones para los que no cumplan las normativas proponemos aumentar la calidad de vida de nuestros perros y con ello la de los propietarios. Nuestras mascotas tienen derecho a disfrutar de nuestro pueblo.

En definitiva, tenemos cuatro años por delante, la ciudadanía nos permite hoy dar un giro a Getxo y a la forma de gestionarlo, por eso os pido el voto a todos los que habéis tenido la fortuna de ser elegidos concejales, despertad, atreveros y no dejéis que por apatía o resignación tengamos otros 4 años de gobierno nacionalista."

A continuación los Concejales procedieron a la votación secreta mediante papeletas proporcionadas a tal efecto y previo llamamiento por parte de la Mesa.

Efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtuvo el siguiente resultado:

Votos emitidos todos ellos válidamente: 25.

Obteniendo de ellos:

Dña. Amaia Aguirre Muñoa: _11_ votos.

D. Eduardo Andrade Aurrecoechea: _5_ votos.

Dña. Nerea Guijarrubia García : _4_ votos

D. Ignacio Robles Fernández: _2_ votos

Votos en blanco: 3

Ondorioz, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 196 c) artikulua araberan, AMAIA AGUIRRE MUÑO A andrea izendatu dute Getxoko alkate, Udalbatza honen gobernu eta administrazioa gida ditzan, joan den maiatzaren 26ko hauteskundeetan herritarren botorik gehien jaso duen zerrendako burua bera izan baita.

Jarraian zin edo promesa eginarazi zaio, Tokiko Erregimenaren alorrean indarrean dauden lege xedapenen Testu Berreginaren 18. artikulua betetzeko; artikulua horrek xedatzen du alkateak bere zereginei heldu baino lehen karguaren zina egin beharko duela udalbatzaren aurrean.

Horretarako, idazkariak zin edo promesa hartu dio, ondoko formulari segituz:

Zin dagizu, edo agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohorearen izenean, Getxoko udaleko alkate arduraren eginbeharrak zintzoki beteko dituzuela, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela, Estatuko funtsezko araua delako?

AMAIA AGUIRRE MUÑO A andreak honelaxe erantzun dio: *“Legeak horrela aginduta hitza ematen dut”*.

Idazkariak alkate izendatu du AMAIA AGUIRRE MUÑO A andrea, eta bera jarri da mahaiburua; orain arteko alkate Imanol Landa Jauregi jaunak aginte makila eta domina eman dizkio, karguaren bereizgarri, eta txistulari banda batek *“Alkate soinua”* jo du.

Jarraian, Aguirre andreak hitz batzuk

En consecuencia, y de conformidad con el artículo 196 c) de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, se proclamó Alcaldesa de Getxo a doña AMAIA AGUIRRE MUÑO A, cabeza de la lista que mayor número de votos populares obtuvo en las pasadas elecciones del 26 de mayo, para regir el Gobierno y la Administración de esta Corporación.

Seguidamente se procedió a tomarle juramento o promesa, de conformidad con el artículo 18 del Texto Refundido de las Disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, que dispone que antes de comenzar sus funciones el Alcalde deberá jurar o prometer el cargo ante el Ayuntamiento Pleno.

A tal efecto, el suscrito Secretario le tomó juramento o promesa, con arreglo a la siguiente fórmula:

“¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?”

A dicha pregunta doña AMAIA AGUIRRE MUÑO A respondió: *“Por imperativo legal prometo”*.

El Secretario declaró posesionada del cargo de Alcaldesa a doña AMAIA AGUIRRE MUÑO A, que pasó a ocupar la Presidencia, procediendo el Alcalde saliente, Imanol Landa Jauregi, a hacerle entrega de la medalla y el bastón de mando, como signos distintivos del cargo, interpretando una banda de txistularis el *“Alkate soinua”*

A continuación la Sra. Aguirre dirigió

esan dizkie bertaratutakoei. Hona hemen:

“Egun on Zinegotzi, idazkari, senide eta osoko bilkura honetara etorri zareten guztioi.

Gaur egun esanguratsua dugu, aldaketa eguna, bidai berri baten hasiera markatzen duen eguna. Urduritasuna eta ilusioa tartean izanik, argi ditugu herriarekiko erantzunkizuna eta konpromezua. Katea ez da eten.

Baina batez ere niretzat oso egun hunkigarria da eta apaltasunez eta zintotasunez jasotzen dut gure herriko makila.

Aurrera egin aurretik eskerrak eman nahi nituzke:

Eskerrak hauteskundeetan parte hartu duzuten getxotar guztiei. Osoko bilkura hau zuen borondatearen islada dugu.

Azken hilabete hauetan gurekin muxutruk lanean aritu diren hainbat persona, empresa, elkarte eta erakundereei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Beraien bidez Getxo beste begirada batekin ezagutzeko aukera izan bait dudalako.

Eskerrak ere Eusko Alderdi jeltzaleari botoa eman diozuten pertsona guztiei. Guregan sinisteagatik eta eman diguzuen konfidantzagatik.

Eskerrak nire alderdiari, egindako lan izugarriarengatik. Niretzat izugarrizko ohorea da betebeharrak hau Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik burutzea eta errespetu handiz egingo dut.

Ez dut ahaztu nahi bereziki nire alboan gau eta egun lanean aritu den taldea. Eskerrik asko Gobernu Taldeari. Beraien lana, konpromezua eta ilusioa ezinbestekoak dira proiektu hau aurrera ateratzeko.

Eta azkenik nire sendiari, beraien laguntza, ulermena, konfidantza eta indarragatik. Beraiek gabe ez nintzateke hemen egongo.

Gaur ibilbide berria hasiko dugu

unas palabras a los asistentes al acto, que se recogen a continuación:

«Buenos días a todos los y las concejales, secretario, familiares y a toda la gente que ha asistido a este pleno.

El de hoy es un día importante, un día de cambio, el día que marca el inicio de un nuevo viaje. Con nerviosismo e ilusión de por medio, tenemos clara la responsabilidad y el compromiso con la ciudadanía. La cadena no se ha roto.

Para mí, personalmente, es un día emocionante, y recibo con humildad y honestidad el bastón de mando de nuestro municipio.

Antes de continuar, me gustaría dar las gracias:

Gracias a todos los getxotarras que habéis participado en las elecciones. Esta sesión plenaria es el reflejo de vuestra voluntad.

También quiero dar las gracias a todas las personas, empresas, asociaciones e instituciones que durante estos últimos meses han trabajado con nosotros a cambio de nada. Gracias a ellos, he tenido la oportunidad de conocer Getxo con otros ojos.

Gracias también a todas las personas que habéis votado al Partido Nacionalista Vasco. Por creer en nosotras y nosotros y por habernos dado vuestra confianza.

Gracias a mi partido, por el excelente trabajo realizado. Para mí es un inmenso honor realizar esta tarea de la mano del Partido Nacionalista Vasco, y lo haré con gran respeto.

Especialmente, quiero acordarme del equipo que me ha respaldado trabajando día y noche. Muchas gracias al Equipo de Gobierno. Su trabajo, compromiso e ilusión son imprescindibles para sacar adelante este proyecto.

Y, por último, a mi familia, por su ayuda, comprensión confianza y fortaleza. Si no fuera por ellos y ellas, no estaría aquí.

Hoy iniciamos una nueva andadura en un

berrikuntzaren eta oparotasunaren sinonimo den Getxon, XXI. mendean identitate propioz aurrera egiten duen udalerrian, hazi, bizi, lan egin eta gozatzeko tokirik onenatariko batean.

Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretan jasangarritasunerantz doan Getxo baten alde lan egingo dugu.

Getxo euskalduna, mundura irekia eta gure herriarekiko, kulturarekiko eta tradizioekiko konpromiso handikoa.

Getxo batua eta sozialki anitza, non pertsona eta bizi-proiektu guztiek tokia izango duten. Gure konpromisoa pertsonetik da, inor atzean utzi gabe. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, errespetua, aniztasuna eta kulturartekotasuna oinarri izanda.

Bizitza osasungarriarekin hazi ahal izateko Getxo baten alde egingo dugu, jarduera fisikoaren, kirolaren eta gure ingurune naturalaren garrantzia nabarmenduz eta mugikortasun jasangarria hobetuz.

Balioa sortzearen eta berrikuntza ekonomikoaren erdigune izango den Getxo. Jarduera ekonomikoa bultzatuko duena kirolaren, osasunaren, kulturaren, merkataritzaren, turismoaren eta zerbitzu profesional aurreratuen inguruan.

Getxo garden eta parte hartzailea, herritarrengandik gertu egongo dena. Herritarrei arreta arina eta eraginkorra emango dion administrazioarekin.

Eta, amaitzeko, gozatzeko moduko Getxo, Euskadiko kulturaren abangoardian kokatuko gaituena.

Gaur udal honen lidergotza hartzen dugu apaltasunez, zintzotasunez eta arduraz.

Gure aurretik izan direlako gu izango gara. Orain guri tokatzen zaigu herriaren alde lan egitea gure haurrei etorkizun duin bat uzteko. Oraindik egiteko asko dago.

Getxo sinónimo de innovación y prosperidad, un Getxo que avanza con identidad propia en el siglo XXI como uno de los mejores municipios donde crecer, vivir, trabajar y disfrutar.

Trabajaremos por un Getxo que transita hacia una sostenibilidad económica, social y medioambiental.

Un Getxo euskaldun, abierto al mundo y con un gran compromiso de país, nuestra cultura y nuestras tradiciones.

Un Getxo cohesionado y socialmente diverso donde todas las personas y proyectos de vida tienen cabida. Nuestro compromiso son las personas, sin dejar a nadie atrás. Desde la igualdad de mujeres y hombres, el respeto, la diversidad y la interculturalidad.

Por un Getxo donde podamos crecer con una vida saludable, poniendo en valor la actividad física y el deporte, nuestros entornos naturales y mejorando la movilidad sostenible.

Un Getxo centro de innovación económica y creación de valor. Impulsando la actividad económica entorno al deporte, la salud, la cultura, el comercio, el turismo y los servicios profesionales avanzados.

Un Getxo transparente y participativo, cercano a la ciudadanía. Con una administración de atención fluida y efectiva hacia sus vecinos y vecinas.

Y finalmente Un Getxo para disfrutar colocándonos en la vanguardia cultural de Euskadi.

Hoy tomamos el liderazgo de este ayuntamiento con humildad, honestidad y responsabilidad.

Por los que han sido, seremos. Ahora nos toca trabajar por nuestro pueblo, para poder dejarles un futuro digno a nuestros hijos e

Getxo udal herri anitza da eta Osoko bilkura honek isladatzen duen bezala, pentsamendu eta sinismen desberdinak elkar lanean aritzeko eskaria egin digu herriak.

Gure aldetik, arbasoak irakatsi ziguten bezala, elkarrizketak beti lehentasuna izango du. Ikuspuntu eta planteamendu desberdinak entzuteko prest egongo gara eta nola ez, akordioetara iristeko lan egingo dugu.

Beraz legeladi berri bati hasiera ematen diogu, proiektu berriekin, aukera eta egiteko modu desberdinekin. Denen artean, elkar guneak bilatuz, Getxo eraberritzen jarraituko dugu."

Alkate andrearen hitzaldia amaitu ondoren, udalbatza eratzeko jendea txaloka hasi da; txistulariek "Agur jaunak" jo dute, eta dantzari bikote batek ohorezko aureskua dantzatu dio udalbatzari. Bukatu da, horrela, bilera, hamarrak eta bost minutuan. Bileraren emaitza hemen jaso da, akta honetan, eta alkateak eta biok sinatu dugu. Nik, idazkaria naizenez, hemen jasotako guztia egiztatzen dut.

hijas. Aún queda mucho por hacer.

Getxo es un municipio diverso, y tal y como lo refleja este pleno, el pueblo nos ha pedido que los diferentes pensamientos y creencias trabajen en equipo.

Por nuestra parte, tal y como nos enseñaron nuestros antepasados, el diálogo siempre será prioritario. Estaremos dispuestos y dispuestas a escuchar diversos planteamientos y, como no, trabajaremos para llegar a acuerdos.

Por lo tanto, damos comienzo a una nueva legislatura, con nuevos proyectos y nuevas maneras de avanzar. Entre todos y todas, buscando puntos de encuentro, continuaremos renovando Getxo».

Terminado el discurso de la Sra. Alcaldesa, el público asistente a la sesión constitutiva prorrumpió en aplausos; los txistularis interpretaron el "Agur Jaunak" y una pareja de dantzaris bailó un "auresku" de honor a la Corporación, dándose por concluida la sesión siendo las diez horas y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente Acta, firmando en unión mía la Alcaldesa, de todo lo cual, yo el Secretario doy fe.